BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

92

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 14koa, Kultura Saileko Zerbitzu zuzendariarena, zeinen bidez aditzera ematen baitira Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2011ko diru-laguntzetara biltzeko dei egin zuen Kulturako sailburuaren 2011ko irailaren 7ko Aginduaren babesean onuradun gertatutako entitateak, diru-laguntza jaso duten programak, bai eta horietako bakoitzari esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa ere.

Irailaren 30eko 164/2008 Dekretuak, uztailaren 13ko 200/2010 zenbakidunak aldaraziak, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen du, eta 11.3 artikuluak dioenari jarraituz, urtean urteko laguntza-deialdiaren gainean Kulturako sailburuak hartutako ebazpena entitate interesdun orori jakinarazteaz gain, entitate onuradunak, diru-laguntza jaso duten programak edo jarduerak eta, azkenik, kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoa ere aditzera emango dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian –Zerbitzu zuzendariaren ebazpen baten bidez–, jendeak horien berri izan dezan.

Hori horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Aditzera ematea Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2011ko diru-laguntzetara biltzeko dei egin zuen Kulturako sailburuaren 2011ko irailaren 7ko Aginduaren babesean onuradun gertatutako entitateak, diru-laguntza jaso duten programak, bai eta horietako bakoitzari esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa ere. Datu horiek guztiak eranskinean daude jasota.

2. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 14a.

Zerbitzu zuzendaria,
IÑIGO CORTÁZAR IBÁÑEZ.

I. ERANSKINA

ZUTABEEN ESANAHIA

A: Espediente-zenbakia.

B: Erakunde eskatzailea.

C: Programa edo jarduera.

D: Behin betiko laguntzaren zenbatekoa.

E-2011: 2011ko ekitaldiari dagokion zenbateko osoaren zatia (% 75).

E-2012: 2012ko ekitaldiari dagokion zenbateko osoaren zatia (% 25).

A	B	C	D	E-2011	E-2012
W85B-ALF-0000/2011001	Fundación Ramón Rubial	**URTEKO PROGRAMA: 1.- RAMÓN RUBIAL EZAGUTARAZTEKO JARDUERAK** [omenaldiak (Gernikako bonbardaketaren gaineko oroitzapenezko jardueretan parte-hartzea, Bilboko *Ohoragarrien atea*n, urriaren 28ko omenezko egintza), liburu-aurkezpenak, erakusketak (*Ramón Rubial, Lehendakari. Euskadiren Oroimena Berreskuratzen*), ea.]. **2.- EUSKAL SOZIALISMOAREN ETA LANGILERIAREN MUGIMENDUEN ARTXIBO HISTORIKOA**: 2.1.- Euskal Herriko Unibertsitatearekiko hitzarmena. 2.2.- Harremana eta informazio-iturriak bilatzea. 2.3.- Dibulgaziozko plataforma digitala sortzea. **3.- *RAMÓN RUBIAL* SARIAK. V. edizioa**. **4.- ESKOLA-UMEEI ZUZENDUTAKO *RAMÓN RUBIAL* NARRATIBA-LEHIAKETA**: VIII. edizioko sarien emate-ekitaldia eta IX.ean parte hartzeko deialdia. **5.- *EUSKADI GAUR* HITZALDI-ZIKLOA**. **6.- EZTABAIDATU ETA HAUSNARTZEKO FOROA**: *Papeles de la Fundación* aldizkaria argitaratzea, *openbloga* sortzea, ea. **7.- *RAMÓN RUBIAL* FORMAKUNTZA ESKOLA**: formakuntza-ikastaroak, kasuan kasu koadroei zein militanteei edo kargo publikoei zuzendutakoak, *Tendel* Elkarte Sozikulturalarekiko eta *Jaime Vera* Institutuarekiko hitzarmen bana, ea. **8.- EUSKAL ALDERDI SOZIALISTA DEITU ZITEKEENA SORTU ZENEKO 125. URTEURRENAREN GAINEKO**	120.238,00	90.178,50	30.059,50

A	B	C	D	E-2011	E-2012
W85B-ALF-0000/2011002	Fundación Sabino Arana Fundazioa	**URTEKO PROGRAMA: 1.- IKERKETEN SUSTAPENA ETA BEKAK :** 1.1.- *Alberto Onaindiaren eta Aguirre lehendakariaren arteko 1936tik 1945ra bitarteko posta-trukea.* **2.- ARGITALPENAK***:* 2.1.- *EAJren prentsa frankismo sasoian.* 2.2.- *Euskal erbestaldia Britainia Handian.* 2.3.- *EAJren historia Mungian.* 2.4.- *DEIArako artikulu-bilduma.* **3.-** ***HERMES:*** **PENTSAMENDUAREN ETA HISTORIAREN GAINEKO ALDIZKARIA** (4 zenbaki). **4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA:** 4.1.- *Energia eta gizarte lehiakor jasangarria* (mintegia eta hitzaldia). 4.2.- *Artea, zientzia eta teknologia* (mintegia eta hitzaldia). 4.3.- *Utopia gertagarriak* (hitzaldi-sorta). 4.4.- *Bake bila baikor: erronka gaindigarria* (mintegia eta hitzaldia). 4.5.- IV. Bilboko elkarrizketak (mintegia). **5.- TEKNOLOGIA BERRIAK ETA TAILERRAK:** 5.1.- *Gazteria eta teknologia berriak* (jardunaldiak). 5.2.- Tailer didaktikoak eta ahozko historiakoak. **6.- DIBULGAZIOZKO LANA ETA URTEMUGA HISTORIKOAK:** 6.1.- XIX. mendearen bukaera aldetik XX. mendeko 80ko hamarkadara arteko Euskadiren historiaren gaineko erakusketa iraunkorra. 6.2.- *HERMES 10,* aldi baterako erakusketa. 6.3.- Ahozko lekukotasunak jasotzea. **7.- KULTUR ETA JOLAS-JARDUERAK:** 7.1.- *Sabino* Arana sarien emate-ekitaldia/jaialdia. 7.2.- Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan parte-hartzea. **8.- BESTE ERAKUNDE EDO INSTITUZIO BATZUEKIN SUSTATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA:** 8.1.- José Ariztimuño, *Aitzol*, fusilatu zuteneko 75. urteurrenaren inguruko jarduera-multzoa, *Aitzol eta Euskal Pizkundea* izenburupean. 8.2.- *Euskal lurraldeak eta nafar estatua* izenburupeko Euskal Herriko Historialarien II. Biltzarra. 8.3.- Alfonso R. Castelao galiziar nazionalismoaren sortzaileari lore-eskaintza. 8.4.- Matxitxakoko itsas-batailan hil ziren Euskadiko Itsas Armada Laguntzaileko gudariei omenaldia. 8.5.- Gernikako bonbardaketaren biktimei lore-eskaintza. 8.6.- Tailer hezigarriak eta erakusketak. 9.- **HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA:** 9.1.- Hainbat datu-base mantentzea eta kontrolatzea. 9.2.- Fundazioaren web orria mantentzea. 9.3.- www.lehendakariagirre.eu web orria mantentzea. 9.4.- Mezu@ bulatinaren edota web orriaren diseinua berriztatzea. 9.5.- Eduki berriak	143.570,00	107.677,50	35.892,50
W85B-ALF-0000/2011004	Fundación Popular de Estudios Vascos	**URTEKO PROGRAMA: 1.- LIBURU-AURKEZPENAK :** 1.1.- *Requetés*, Victor Sierra-Sesumagak eta Pablo Larrazek elkarlanean idatzia. 1.2.- *Raíces de libertad*, Antonio Merinok eta Álvaro Chapak elkarlanean idatzia. 1.3.- *Vivir frente al terror: Memorias de Carlos Iturgaiz*, Chelo Apariciok idatzia. **2.- EZTABAIDARAKO TRIBUNA :** 2.1.- Esteban González Ponsen (gaia*: Espainiaren egungo egoera politikoa*), Elvira Rodríguezen (gaia: *Madrileko Autonomia Elkargoaren egoera politikoa eta legeak onartzeko prozedura legislatiboa*) eta Iñigo de la Sernaren (gaia: *Santarderreko Udalaren egoera ekonomiko-finantzieroa, Santander hiriburuaren etorkizunari begira peko proiekzioa eta Bilboarekiko osagarritasuna*) hitzaldi bana. **3.- JARDUNALDIAK:** 3.1.- *Aiara Haraneko etorkizun ekonomikoa.* 3.2.- *Euskadi, lagun ekintzaileen herria.* **4.- TERRORISMOAREN BIKTIMEI OMENALDI-GALA. 5.- VATIKANOKO ARTXIBOA IKERTZEA:**	21.190,00	15.892,50	5.297,50
			284.998,00	**213.748,50**	**71.249,50**